

Gezala AUDITORIUMA

APIRILA - Abril

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 5	ASTE SANTUAN	
LARUNBATA 7	EMANALDIRIK EZ DAGO	
OSTEGUNA 12	22:00	EL SEÑOR IBRAHIM Y LAS FLORES DEL CORÁN
LARUNBATA 14	16:30	HARTZ TXIKI 3
OSTEGUNA 19	22:00	LA INTERPRETE
LARUNBATA 21	EMANALDIRIK EZ DAGO	
OSTEGUNA 26	22:00	NICOTINA
OSTEGUNA 28	22:00	BEATRIX POTTER 1


KULTUR HOTSAK

ANTZERKIA

APIRILA 13	OSTIRALA 22:30	"No hay ladrón que por bien no venga"
APIRILA 20-21	OSTIRALA 22:30 LARUNBA 19:30	"Gezurra gezurraren gainean"

ERAKUSKETA

APIRILA 16etik 28ra	ASTELEHENETIK OSTIRALERA 17:00 - 20:00 LARUNBATA 10:00-13:300	Lezoko Dantza Taldearen 50. urteurrena
---------------------	---	--



Donostiako Antzerki Estudioa

"No hay ladrón que por bien no venga"

0€

2007ko apirilak 13, Ostirala • 22:30

Gezala Auditoriuma



"No hay ladrón que por bien no venga" antzezpenean egilea tea hartzen ari den bitartean, antzezleek haren bizitzari buruzko azalpenak ematen dituzte komunikabide baten laguntzaz (irratia, zinema, prentsa, etab). Pertsonaia eza-gutzeko irekitako leiho bat eskaintzen da. Daria Fo-k (Literaturan Nobel saria jaso) lehen aroan idatzi zuen fartsa honetan umorea izango da oinarri. Antzerki-egitasmoetan 2001ean eta 2002an Donostiako Udako Unibertsitatearekin lankidetzan aritukoak dira. Arcipreste de Hita lehiaketan ikuskizun onenaren, emakumezko eta gizonezko antzezle onenaren eta Zuzendaritza onenaren saria jaso zuten. Halaber, Miami Antzerki Hispanikoko Nazioarteko Festibalean parte hartzeko hautatu dituzte. Zaletasuna asetzeko eta euren lurraldean antzerkia hedatzeko jo eta su lanean aritu ondoren, taldekideek jarduerari eta antzerki-munduekiko harremanari eutsi zioten, irradian, zineman eta antzerkian hainbat eta hainbat lankidetzaz eginez.

ZUZENDARITZA: Manolo Gomez / ANTZEZLEAK: Carmelo Moreno, Karmele Alza, Mercedes Galiana, Jose Luis de Torres, Esther Remiro, Iñigo Ortega.
IRAUPENA: 60 minutu.

Murixka

"Lezoko Dantza Taldearen 50. urteurrena"

Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00 Larunbata: 10:00-13:30

Kultur Aretoa (Donibane kalea, 2)

Lezoko Dantza Taldearen 50. urteurrena dela eta, Murixka Dantza Taldea jardura ezberdinak burutzen ari da. Aipatu jardura horietako bat Lezoko Dantza Taldearen inguruko argazki erakusketa bat izango da. Erakusketa honetan Lezoko Dantza Taldearen ibilbidea islatu nahi da arlo ezberdinetan. Bai dantza taldea bera propioki hartuta, edota parte hartu izan duen txapelketa ezberdinena: fandango eta arin-arin, neskatxena edota aurrekulariarena. Guzti hau trofeo, argazki eta bideo bitartez emango da ezagutzera.



Orratx Antzerki Taldea

"Gezurra gezurraren gainean"

5€

2007ko apirila 20, Ostirala • 22:30

2007ko apirila 21, Larunbata • 19:30

Gezala Auditoriuma



Dario Foren "L'uomo nudo e l'uomo in frac" eta "I cadaveri si spediscono e le donne si spogliano" antzezlanetan oinarritua.

Dario Fo-ren bi antzezlan hauek antzerkigile italiarraren lanen ia ezaugarri guztiak biltzen dituzte beren baitan. Kritika soziala, edo hobeto esanda politika, ez da hauetan nabarmentzen baina gainerako osagai guztiak irakasgai batean emango bagenitu bezala ageri dira. "Frakez jantzitako gizona eta gizon biluzia" gizakion izenaz eta izanaz mintzo zaigu, kanpoko itxurak edo jazkerak gure jatorrian eta patuan eraginik baduten ala ez, eta alderantziz. Azkenean nor zer den jakiteak ere lanak emango dizkigun endredo barregarria inondik ere. "Zerraldo bidaiariak" izeneko antzezlanak, berriz, hondo sakon eta serio-xeagoa du. Alabaina, tartean gertatzen diren gaizki ulertu eta "iruzurtxoek" inozentziatik maltzurkeria handienera doan bidea eta kontrakoa eskena berean egitea ahalbidetuko dute. Negozio berezi bat tarteko eta nahasmen izugarri baten ondoren, bizitzan zenbat moztar eraman ohi ditugun eta errealitatea zenbateraino itxuraldatu daitekeen deskubrituko dugu.

Biak hala biak ironiaz, sarkasmoz eta egoera barregarritz zeharo zipriztinduriko antzezlanak direla esatea soberan dago, egilea nor den jakinda.


ZUZENDARITZA: Lierni Fresnedo

ANTZEZLEAK: Mertxe Larrea, Edurne Agirrezabala, Patxi Larrea, Joxe Mari Gurrutxaga, Begoña Azpiazu, Xabier Larrea, Juanjo Arraia, Emili Etxebeste.

Lezoko zine agenda

APIRILA ABRIL

2007



AUDITORIUMA



Lezoko Unibertsitateko
Udala

Osteguna / Larunbata 2,00 €

Larunbata 16:30etan 1,00 €

OSTEGUNA • jueves

EL SEÑOR IBRAHIM Y LAS FLORES DEL CORÁN

Adinean aurrera doan Ibrahim jauna Parisen bizi den arren, jatorriz turkiarra eta musulmana da. Momo berriz frantziar hiritar judutarra. Biak ere bakardadea lagun, elkarren artean ezagutu bezain pronto harreman sendoa abiaraziko dute.

2003, Frantzia. 94 min. Dupeyron, François. Omar Sharif, Pierre Boulanger, Isabela Adjani, Gilbert Melki, Isabelle Renaud.

LA INTERPRETE

Nicole Kidman NBE-ko itzultzailea da. Berak nahi izan gabe istilu politiko handi eta larrian nahastua ikusiko du bere burua. Atsedetik izaten ez duten betiko ekintza pelikula.

2005, EB, EEBB, Frantzia. 128 min. Pollack, Sidney. Nicole Kidman, Sean Penn, Catherine Keener, Yvan Attal.

NICOTINA

Lolo hackerra da. Pasahitz batzuk saldu behar dizkio errusiar mafiari. Era berean bere bizilagunarekin maitemindua dago. Istorioak aurrera egin ahala egoera berezi, bitxi eta sinesgaitzak suertatzen joango dira.

2003, Mexiko, Argentina, Espainia. 86 min. Rodríguez, Hugo. Diego Luna, Lucas Crespi, Rafael Inclán, Marta Belaustegui.

ASTE SANTUAN

EMANALDIRIK EZ DAGO

LARUNBATA • sábado

HARTZ TXIKI 3

Marrakzi bizidun hauetako protagonista Hartz Txiki da, hartz ameslari bat. Pelikula honetan Hartz Txiki eta bere lagunak abenturak ikusteko aukera izango duzue.

1996, Kanada. 70 min. Jafelice, Raymond. Marrakzi bizidunak.

EMANALDIRIK EZ DAGO

BEATRIX POTTER 1

Hiru ipuin kontatzen zaizkigu marrakzi bizidun koloretsu eta bizi hauetan: *Flora-ren untxien eta Lucinda sagutxoaren ipuina, bi sagu bihurri eta Juan Hirirena eta Raposo jaunarena.*

2003, EB. 78 min. Unwin, Dave. Marrakzi bizidunak.